

AKONDIA, LEXAR BAGA

(Gerra baten historia zati bat)

Eibartarrentzat ez-eziz, Euskal-Herriko mendizaleentzat ere oso ezaguna da Akondia. Mendi hau, bere 748 metrokin, Eibarko lur barrutian daukagu, Usartzaren gainekaldean.

Usartzako bizkarra eta Akondiako tontorrik altuenaren bitartean, Akondia baserria eta bere alboan San Pedroren ermitatxoa .Hau ez dakien eibartarrik ez da izango. Baina gutxiak dakiena, Akondia mendiaren tontorrik altuenaren izena da: Arrikurutz, inguruko baserriarrak deitzen diotenez. Izen honek, beste gabe, noizbait harrizko kurutza egon zala agertzen digu.

Baina oraindik gutxiago dakitena, mendi honetan, XIV eta XVgarren mendeetan burruka latzak izan zirela.

Oñaz eta Ganboa ahaide nagusiak elkarren artean izan zituen anai arteko gerra zital haietan, Eibarko Unzuetaarren torre zaharrak, haugatik ezagutu zituen, historian zehar, zenbait erreketeta. Hamar urte dira honi buruzko agiriak **El Solar de Unzueta y su participación en el bando oñacino** izeneko lan batean eman nituela ("Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País", año XVII, 1961, pp. 377/389). Unzueta hau, Azitainen Jauregi izenez ezagutzen duguna da. Lehen torre zaharra egoan lekuan jaso zan jauregia. Gaur, Lasalletarrak kolegiotzat dauke. Baina Unzuetaz ez naiz luzatuko. Hemen, soilik, Akondiaz jardungo naiz.

Akondiako lehenengo gerrateko burruka, agiriak diotenez, 1390garren urtekoa da. Orduan zabaldu omen zan "Akondiako kanta", burruka haren oroitzapenez. **Acund iejarr(...)ga lejarbaga** hasieraz ezagutzen zana, Ibarгүйen-Cachopin-en koronikak 70garren kuadernuan dakarrenez. Mitxelenak **Txetos arcaicos vascos**-en 69garren orrialdean jasotzen ditu bere oharrak.

Gaur ez da ezagutzen kanta hau. Galdua da nonbait. Kantaren hasieraren esan nahia, Akondia, lehen leizarrez (=lexarrez) zan, burrukaren ondorean leizarrik gabe gelditu zala, uste da.

Ikusten danez, kanta hau, hain zabaldua zalako ez zuten dana jaso koronika horretan, eta gaur bere aztarnarik ere ez zaigu gelditzen. Zer pena

Burruka edo gudu honen berri, Lope García de Salazar-ek ere jaso zuen bere **Las Bienandanzas e Fortunas**-en 22garren liburuan. Ganboarrak hesia ipini omen zioten Unzuetaarren torrearri eta Butrongoak, oiñaztarrak hauek ere, laguntzera etorri omen ziren, eta orduan elkar jo zirela Akondian, oiñaztarrak eta ganboarrak. Gudu honetan, ganboarrak benderatu omen zituen eta Durangoko Joan Ybargoengoa bertan hil.

Las Bienandanzas e Fortunas-ek, liburu berean dioanez, 1422an berriz atakatu zuten Unzuetaako torrea, eta ere berean berriz elkarrekin burruka izan zutela Akondian bertan, eta berriz ere oikaztarrak nagusitu.

Gure mende honetako azken gerratian, zazpi hilabetez egon zan bertan frentea, amaika bizi kostatu zan; baina hau nik baino hobeto ezagutzen dute adinagokoak, bertan parte hartzera behartu zirenak, eta nik baino zehatzago zer konta izango dutenez, berentzat uzten dut parte hau.

Juan SAN MARTIN